

KRONIKA

Mugak zabaltzen



Paula Ugarriza
Marina Guisasola

Arkitektura ikasleak, 2.
maila, EHUko Donostiako
Arkitektura Goi Eskola
Teknikoa

Jasotze data: 2017-11-28

Onartze data: 2018-01-03

EHUko Arkitekturako ikasleok Euskadiko lehen Arkitektura Bienalean (Mugak) parte hartu genuen, bere nukleoa Donostiako Miramar Jauregian izan duena. Ekitaldi horri azaroaren 6an hasiera eman zitzaion eta 2018ko urtarrilaren 31n bukatu zen. Jaialdi guztian zehar, hainbat ekintza garatzen ari dira; batik bat tailerrak, konferentziak, mahai-inguruak, erakusketak, elkarrizketak eta bisita gidatuak. Ekintzak Donostiako gune askotan gauzatzen ari dira, Tabakalera, San Telmo Museoa eta Koldo Mitxelena Kulturunean batez ere, eta herriari zabalik egon izanak jendea hurbiltzea eragin du.

Arkitekturaren munduaren barnean arlo ezberdinetako adituak gerturatu dira; eraikuntzako komertzialen, arkitektoen eta beste zenbait lanbidetako hizlarien iritzia entzun genituen. Horren ondorioz, lan egiteko era ezberdinak gertutik ikusi genituen baita arkitekturaren ugaritasuna herrialde ezberdinetan ere.

Guk, ikasle gisa, azaroko bigarren astean parte-hartze aktiboa izan genuen. Fakultateko ikasle guztiok hainbat proiektu garatu genituen Miramar Jauregian. Zenbait arkitekto eta adituri elkarrizketak egin genizkien eta hizlari konkretu batzuk gertutik aztertzea ahalbidetu ziguten, adibidez, ikasle batzuek RCR Architects-eko Rafael Aranda eta Sou Fujimoto arkitekto famatuekin elkarrizketa bat izateko aukera izan zuten.

Gure kasuan, adibidez, Madrilen irakaslea eta Arkitektura Nazionalaren sariduna izan den Jose Manuel Lopez Pelaez-i eta Donostiako Arkitektura Eskolako irakaslea den Mario Sangalli-ri elkarrizketa egiteko aukera izan genuen. Elkarrizketa Imanolena etxearen inguruan egitea erabaki

genuen; Jose Manuel Lopez Pelaez-ek hari buruz hitz egin zuen bienalean, haren tesia izan baitzen, eta Mario Sangalli Peña Ganhegiren estudioaren buru da, eta horregatik proiektua sakonean ezagutzera behartu ginen, intereseko galderak prestatzeko asmoz. Ondorioz, Imanolena etxeari ikuspuntu berri baten bitartez begiratzen diogu orain, beste hainbat arkitektoen obren antzera. Esperientzia polita izan zen, denak ariketan murgildu baitkinen. Hitzaldi ugarietara ere joan ginen, eta amaiera gabeko arratsalde ugari gozatu genuen.

Arkitekturako ikasle bezala, bienalean parte hartu izana aukera paregabea izan dela kontsideratzen dugu, bai konferentzia eta tailerren bidez ikasteko, bai arkitekturarekin dugun erlazioa sakontzeko. Bienala izan eta gero, arkitekturarekiko genuen ikuspuntua zabaldu egin da eta hori bultzada bat izan da gure interesean. Horrek dituen onurak ikusita, eskola eta EHUko beste fakultateak animatzen ditugu mota horretako ekitaldiak antolatzea.



1. eta 2. irudiak ~ RCR-ren erakusketa.
3. irudia ~ Mario Sangalli eta Lopez Pelaezi eginiko elkarrizketa.

Egileak ~ Paula Ugarriza eta Marina Guisasaola.